

a.3 GELAKO OHITURAK: ASTEKO ARDURADUNA

> Eguraldia eta data



- Hiztegi birpazarako fitxa

Helburuak

- Ikasitako hiztegia birpazatzea: eguraldia, urtarok, hilabeteak eta asteko egunak.
- Idatzizkoan erreparatzea.
- Hitzekin jolas egitea.
- Egon litezkeen gabeziak detektatzea.

Prozedura

- Hezitzaileak aukeratu behar du umeei fitxa guztiak bete behar dituzten edo ez.
- Umeei fitzak banatu eta ariketa bakoitzean zer egin behar den azaldu:
 - **Lotu:** irudiak izenekin lotu beharko dituzte.
 - **Elkartu marrazkia eta hitza gezi batekin:** irudiak izenekin lotu beharko dituzte.
 - **Gurutzegrama:** irudi bakoitzari zein hitz dagokion erabaki eta laukietan idatzi beharko dituzte.
 - **Hizki bakoitza bere lekura:** hodei barruan dauden hizkiak zein marrazkiri dagozkien erabaki eta irudiaren azpian ordenan idatzi beharko dituzte.
 - **Hizki zopa:** landutako hitzak hizkien artean aurkitu eta borobildu beharko dituzte.

Oharra

- Umeei ez dituzte zertan fitxa guztiak bete. Hala ere, hizki zopa birpazarako oso ariketa egokia da.